

Ibiltzea
gustuko?
¿Te gusta caminar?



**DURANGOTIK IBILBIDEAK
RUTAS DESDE DURANGO**



1. IBILDIDEA URKIOLAKO BIDEA

DURANGO - IZURTZA - MAÑARIA - URKIOLA

Ibilbidea Durangoko Tabira auzoan hasten da: Gasteizera doan errepidea hartuko dugu. Izurtzara heldu baino lehenago, **Etxaburu** dorretxea ikusiko dugu.

Espaloitik aurrera eginez, Izurtza zeharkatu eta Mañarira iritsiko gara. Mañaria igaro eta Urkiolako lehen maldetara iritsiko gara. Bertan, malda hasieran, ezkerrean dagoen pistan gora hasiko gara.

Bidean gora goazela inguru honetako landare asko eta asko ikusiko ditugu **Untzillatx** mendi magalean zehar. Baserri batzuen ondotik pasatuko gara: **Solaguren, Arriaga eta Bizkarra**, eta **San Martin baseliza** ere ikusiko dugu. Halaber, **Elosu borda** eta **Gatzaieta** baserria ere ikusiko ditugu. Azkenik, Txakurzulo baserri ondotik igarota, Urkiolako hiru gurutzeetara helduko gara: ikuspegi ezin ederragoaz goatzeko aukera.



DISTANTZIA
10 km



IRAUPENA
3 ordu



DESNIBELA
586 m



ZAILTASUNA
Erreza



2. IBILBIDEA NEBERONDORA OSTERTXO BAT

DURANGO - NEBERONDO - SANTA LUZIA - OROZKETA

Ibilbidea Durangoko San Roke basilizan hasten da. Saihesbide azpitik igaro eta ezkerreko aldean hartuko dugu. Hemendik gutxira berriro hartuko dugu ezkerreko aldean, eta San Rokeburu aisialdi-gunera eta Durangoko balkoira iritsiko gara.

Begiratokiaren eskuineko aldetik bidexka bat dago Bitañon auzora doana. Bitañon, **Palazio** baserria ikusiko dugu (XVI-XVII) mendekoa, eta Zabala familiaren armarioa ere bai.

Eskuinaldeko pista jarraituta **Dolometa** mintegira eta basozainen etxera helduko gara. Pistari jarraituz, gurutze batera helduko gara eta, han, ezkerreko aldean hartuz, **Neberondora** helduko gara (440 m). Bertan neguan jauzitako elurra gordetzen zen izotz modura erabili ahal izateko eguraldiak epeltzen zuten.

Neberondoko bigarren bidegurutzetik ezkerreko aldean hartuko dugu, **Santa Luzia** auzorantz alegia. **Mugarrako** iparraldean gaude, eta ondo zaindutako baserri batzuk ikusiko ditugu bertan.

Santa Luzia auzoa igarota, mendi-pistak bidegurutzetik batera eramango gaitu. Ezkerreko aldean hartuz gero, **Landaederra** aisialdi-gunera iritsiko gara; eskumakoa hartuta, kilometro bat inguru harri-txintzarreko pistatik joango gara, baina gero bide asfaltatua aurkituko dugu: Orozketa auzora eramango gaituen bidea alegia. Ibilbidea Durangon amaituko da.



DISTANTZIA

11 km



IRAUPENA

3 ordu



DESNIBELA

300 m



ZAILITASUNA

Erreza



3. IBILBIDEA TONTORRETAKO IKUSPEGIA

DURANGO - MENDIOLA - ATXARTE - POL-POL

Ibilbidea Tabirako San Pedro elizako parkean hasten da. Ezkerraldera jo eta Mañaria erreka gurutzatuko dugu.

Zubia igaro eta eskuinalderantz hartuko dugu, aldapan gora. Bidearen eskuinaldean baserri bat ikusiko dugu, eta apur bat aurrerago, eskuinaldera, porlanezko bide bat. Horixe hartuko dugu. Aldapa osoa igotakoan, bidegurutze batera helduko gara. Bertan harri-txintxarrezko bidea hartuko dugu. Hurrengo gurutzean, eskuinaldera hartuko dugu, bide asfaltatuan gora.

Hemendik lasterrera, ikuspegi zoragarria dago: **Untzillatx, Astxiki, Alluitz, Anboto...** Bidea jarraituta **Larringan errotara** helduko gara. Bertan, asfalto ezkerretara utzi eta errota aurretik igarotzen den belarrezko bidezidorra hartuko dugu.

Larre berdeak, zuhaixkak eta pinudiak zeharkatuko ditugu beheranzko bidean. Halako batean, asfaltozko bihurtune batera helduko gara.

Asfaltozko bidea jarraituko dugu **Auzunera** heldu arte. Bidearen eskuinaldean harraska bat ikusiko dugu, eta harraska ondoan bidexka bat. Horixe hartuko dugu: **Betiko baserritik Atxartera** eramango gaituen bidexka.

Bidexka amaitu eta Atxarterako igarobidean sartuko gara, **Untzillatx eta Astxiki** artean. **Atxarterako Kristoaren** ermita igaroko dugu, gero erreka gaineko zubi bat: Alboan ur-errota baten aztarnak ikus daitezke. Porlanezko bidean gora jarraituko dugu, eta aparkalekua dagoen tokian, ezkererantz hartuko dugu, bidexka baten pendizetan gora. Pagadi bat igaro ostean, **Guenzelai** izeneko lautadara helduko gara. Guenzalaitik ezkerredera hartuta **Artolarako** bide malkartsua dago, eta handik **Astxikira** (ezkerretara) edo **Alluitzera** (eskumara) joan daiteke. Gu, ostera, beste bidetik hartuko dugu, haitz-magalen paretik doana: **Pol-Pol**-erako bidea.

Bide erdian, **Amilla iturria** dago, pagadi eder bat erdian hain zuzen. Aurrera eginez, beste pagadi batera helduko gara, eta han hasten da **Pol-Pol**-erako aldaparik gogorrenak. Izerdi apur bat bota ostean, Asuntzeko larretara iritsiko gara, Pol-Pol-era. Larrearen erdian metal-ureko iturri eder bat dago. Pol-Pol-etik abiatuta inguruko beste paraje eder batzuk ere bisitatu ahal ditugu: **Larrano, Anboto edo Urkiolagirre**. Bestela, **Urkiolako Santutegira** daraman pista hartu ahal da.



DISTANTZIA

13 km



IRAUPENA

3,5 ordu



DESNIBELA

700 m



ZAILTASUNA

Nahiko erreza



4. IBILBIDEA MUGARRA

DURANGO - LARRINAGATXU - SANTA LUZIA - MUGARRA

Ibilbidea Durangoko San Roke basilizan hasten da. Hemendik ezkerreko errepidea hartuko dugu, **Larrinagatxu** auzorantz.

Larrinagatxun, porlanezko horma baten ondoan, eskuinaldeko bide asfaltatua hartuko dugu. Hemendik bide zabalago bat hartuko dugu, **Arrioletxe** baserritik gertu. Durangaldearen ikuspegi ezin ederragoa izango dugu begien aurrean. Pista hartu eta pinudian sartuko gara. Bide bat aurkituko dugu: horiz eta zuriz margotua. Bide honek Santa Luzia auzora eramango gaitu. Pintura markak jarraituko ditugu harik eta txabola batera heldu arte.

Pendiza gogor bat igo ondoren, **Katazka** haitzartera helduko gara, eta hemendik **Mugarrikolandara** helduko gara. Mugarrikolandan **Oiñiturri** iturrian edan dezakegu ur tragoxka bat. Ezkerraldean dagoen bidea hartuz **Mugarra** mendirantz joan gaitezke. Bai Mugarrikolandatik eta baita Mugarra tontorretik ere Durangaldeko paraje ederrez gozatuko dugu, eta sai asko ere ikusiko ditugu zeruan bueltaka.



DISTANTZIA

8 km



IRAUPENA

4 ordu



DESNIBELA

850 m



ZAILTASUNA

Nahiko zaila



Durango Turismo Bulegoak argitaratua / Edita Oficina de Turismo de Durango
L.G.-D.L. BI-1624-2018 / 2018ko edizioa, 2.000 ale / Edición 2018, 2.000 ejemplares.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



94 603 39 38

www.turismodurango.net

turismo@durango.eus

Kurutziaga, 38 · 48200 Durango

URTE OSOAN ZABALIK ABIERTO TODO EL AÑO

Egunero 10:00-14:30*

Asteazkenetik ostiralera 10:00-14:30 / 16:00-18:30

Larunbat eta igandeetan 10:00-14:30 / 16:30-18:30*

Urtarrilak 1 eta 6, eta abenduak 25, itxita

* Urtarrilla, Otsaila, Azaroa eta Abenduan (astelehenetan itxita)

Larunbat eta igandeetan arratsaldean soilik Museoa.

Todos los días 10:00-14:30*

Lunes a viernes 10:00-14:30 / 16:00-18:30

Larunbat eta igandeetan 10:00-14:30 / 16:30-18:30*

1 y 6 de enero y 25 de diciembre, cerrado

* Enero, febrero, noviembre y diciembre (lunes cerrado)

Sábados y domingos por la tarde sólo el Museo



INFORMAZIO INFORMACIÓN

Durango, Durangaldea eta Euskadiko interes-puntuei, ostatuei, garraioei eta kulturari buruzko informazioa.

Información sobre lugares de interés, alojamiento, transportes y cultura en Durango, Durangaldea y Euskadi.



AUDIOGIDA
AUDIOGUÍA



HIZKUNTZAK
IDIOMAS




WEBGUNEA
PÁGINA WEB



BIDAITXOKO
VIAJETECA



OROIGARRIAK
SOUVENIRS



ERRESERBAK
RESERVAS

Durango Turismo Bulegoak, zerbitzugintzan bitartekari-lanak egiten dituen neurrian, ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain jardura hauek burutzean sortu daitekeen edozein gertakariren aurrean, hortaz, erantzukizunetatik libre geratzen da.

La Oficina de Turismo de Durango, como intermediaria en la prestación de estos servicios, no se responsabilizará de posibles incidencias surgidas como consecuencia de la realización de estas actividades, quedando libre de cualquier responsabilidad.